

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

HABEREN ZUZENDARITZA-BATZORDEA

BILERA-AKTA.

AURKIBIDEA

Gaia	Orri-zenbakia
.- BERTARATUTAKOEN ZERRENDA	2
.- AZTERGAIAK	3
.- 2020-12-18KO BILERA-AKTA ONARTZEA.....	3
.- 2022RAKO HABEREN AURREKONTUA ETA MEMORIAREN AURKEZPENA.....	3
.- 2022KO HABEREN AURREKONTU-PROIEKTUA: SARRERAK ETA GASTUAK	3-4
.- HABEREN 2021 ETA 2022 URTEETAKO MEMORIA.....	4 -7
..- GALDE-ERREGUAK.....	7- 12



HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

HABEREN ZUZENDARITZA-BATZORDEA

BILERA-AKTA.

Eguna: 2021-12-17

Hasiera-ordua: 09:30

Bukaera-ordua: 12:00

BERTARATUAK

BATZORDEBURUA:

Bingen Zupiria Gorostidi jauna, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.

BATZORDEKIDEAK:

- Miren Dobaran Urrutia andrea, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordea.
- Estibaliz Alkorta Barragan andrea, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria.
- Joseba Lozano Santos jauna, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.
- Jokin Azkue Arrastoa jauna, HABEren zuzendari nagusia eta Zuzendaritza Batzordearen idazkaria.
- Xabier Arauzo Uriarte jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko ordezkaria, Lore Bilbao eskuordetuz.
- Juan Carlos Murillo Belaustegui jauna, HABEko Hizkuntzaren Didaktikako zerbitzuko ordezkaria, Lurdes Isartek utzitako lekua betez.
- Joseba Urriz Goikoetxea jauna, Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria.
- Joseba Arbelaiz Zumeta jauna, Gipuzkoako udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria.
- Lexuri Ugarte Aretxaga andrea, Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria eta Arabako Foru Aldundiko ordezkaria, Arabako Diputatu Nagusi Remiro Gonzalez eskuordetuz.
- Garbiñe Doval García andrea, HAEE-IVAPEko Euskara zuzendariordea.
- Sagrario Aleman andrea, Euskaltzaindiaren ordezkaria, Andres Iñigok utzitako lekua betez.
- Aritz Abaroa jauna, EUDELEko ordezkaria, Txomin Sagarzazuk utzitako lekua betez.

Itziar Azurza-Sorrondegui andrea, HABEko Aholkularitza juridikoko eta pertsonaleko Arloburua, HABEko zuzendari nagusiaren idazkari-lanetan arituko da.

BERTARATU EZINA ADIERAZI DUTENAK

Miren Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia. Online konektatu da bilera zuzenean jarraitzeko.



HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

AZTERGAIAK

- 1.- 2020-12-18ko bilera-akta onartzea.**
- 2.- 2022rako HABEren aurrekontua eta memoriaren aurkezpena**
 - 2.1.- 2022ko HABEren aurrekontu-proiektua: sarrerak eta gastuak**
 - 2.2.- HABEren 2021 eta 2022ko memoria**
- 3.- Galde-erreguak.**

Gai-ordenako gaiei heldu aurretik, Bingen Zupiria Sailburu jaunak bilera grabatzeko baimena eskatu die bertaratuei, eta inork eragozpenik adierazi ez duenez, horrela egingo dute. Horrez gain, batzordearen osaketan izandako aldaketen berri eman eta batzordekide berriak aurkeztu ditu, aktan jasota gera dadin eta elkarren ezagutza izan dezaten.

ESANAK ETA ERABAKIAK

1.- 2020-12-18KO BILERA-AKTA ONARTZEA

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu eta batzordeburu Bingen Zupiria Gorostidi jaunak eman dio hasiera bilerari, eta ezer baino lehen, aurreko bilera-akta onartzea proposatu du eta, hura aldatzeko edo zuzentzeko proposamenik egin ez denez, onartutzat eman dute.

2.- 2022RAKO HABEREN AURREKONTUA ETA MEMORIAREN AURKEZPENA

2.1.- 2022KO HABEREN AURREKONTU-PROIEKTUA: SARRERAK ETA GASTUAK

HABEren zuzendari nagusi Jokin Azkue jaunak hartu du hitza. Aurrekontu-igoera izan da aurten; Eusko Jaurlaritzak onartu ondoren Legebiltzarrerara bidalitako aurrekontuetan zenbait igoera proposatu eta onartu dira, eta jarraian garrantzitsuenak aipatu eta xehetuko dira.



HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

SARRERAK. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egindako diru-ekarpena hazi egin da aurten. Hazkunderik handiena hortxe izan da (45.819.000€ dira guztira). Berritasun nagusiak, hurrengo ekitaldiari dagokionez, hiru dira. Lehenik, etorkinak euskalduntzeko Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin hitzarmena berreskuratu da (70.000€). Bigarrenik, espetxeen gaineko eskumen berriari dagokionez, espetxeetako herri-langileak euskalduntzeko zuzkidura txiki bat sortu da (30.000€). Hirugarrenik, Inbertsioetarako ekarpen handiagoa egingo du aurten Kultura eta Hizkuntza Sailak, besteak beste, INGURA izeneko auto-ikaskuntzarako edo online sistema berri bat garatzeko eta euskaltegiei inbertsioetarako diru-laguntzak zabaltzeko (Kultura eta Hizkuntza Sailak jarritako 700.000€ + HABEk jarriko dituen 200.000€ = 900.000€ guztira).

GASTUAK. Ohiko gastuek bilakaera berdintsua erakutsi dute. Gastu garrantzitsuenak udal euskaltegiei eta, bereziki, euskaltegi pribatuei ematen zaizkien diru-laguntzak dira. Hurrengo ekitaldiari begira, euskaltegi pribatuei dagokien diru-partida handitu egin da. Dena den, partidarik garrantzitsuena inbertsioei dagokiena da: 400.000€ jarri dira auto-ikaskuntza sistamarako, urte anitzeko kreditu baten bidez (hasiera batean 2027 arte planteatu dugu, baina asmoa da 2025erako garatuta egotea eta kredituak aurreratzea). Datozen urteetan, euskaltegiei inbertsioetarako diru-laguntzak emango zaizkie, hardwarea eguneratzeko (euskaltegietan pantaila berriak jartzeko). Beraz, esan liteke HABEren aurrekontu osoa %6-7 artean haziko dela.

2.2.- HABEREN 2021 ETA 2022 URTEETAKO MEMORIA

Programaren deskribapenean datza memoria (2021ean zer egin dugun eta 2022an zer egingo dugun). Jarraian, berritasunak aipatuko dira soil-soilik.

1) MATERIALGINTZA: MATERIALGINTZAN, proiektu bat **abian** du HABEk jada, hots, **C1 PRIMERAN** garatzea; A1-A2 eta B1-B2 mailetan lan-jardun batzuk egin ondoren, orain C1 mailari egokitu zaio txanda. Egitasmo honen jarduerarik garrantzitsuena 2022an egingo da, baina 2023. urtean ere lan horren guztiaren zati txiki bat burutuko da. Programa hau aurrez aurreko ikaskuntzarekin lotua dago. ELKAR enpresak gauzatuko ditu lan horiek. Egitasmoa ondo doala azpimarratu du Azkue jaunak, ez dagoela atzerapenik eta, ustez, datorren urtean garatuta egon daitekeela. Gaineratu du, deigarria dela, hala ere, azken urteetan HABEk egindako lizitazioetan enpresa edota elkarte gutxi aurkeztu direla, eta horren ondorioz, zailtasunak daudela horrelako egitasmo handiak aurrera ateratzeko, enpresa gutxi direlako horretan aritzen direnak.

Horrekin batera, Jokin Azkue jaunak adierazi du **AUTO-IKASKUNTZA TUTORIZATUA** (eta zati batean tutorizatu gabea) izango duen programa bat garatu nahi duela HABEk. Aurten hasiak direla HABEren aztertzen zer eta nola egin, ABA English taldearen aholkularitzaz (ingelesa ikasteko plataforma bat da). Gaur egun indarrean dagoen BOGA sistema, hainbat euskaltegi erabiltzen dutena, dagoeneko zaharkituta geratu da (20 urte egin ditu jada), bai edukien trataerari dagokionez eta bai ikuspegi

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

teknologikotik ere. Horrexegatik, **INGURA IZENEKO SISTEMA BERRIA** garatu nahi du HABEk. Bi euskarri izango lituzke INGURAK: batetik, app bat mugikorretarako, eta, bestetik, ordenagailurako plataforma bat. Une honetan zer plataforma erabiliko den aztergai du HABEk eta, gero, plataforma aukeratu ondoren, ariketak egiteko zer euskarri edo aplikazio erabiliko diren zehaztu beharko da. Abendurako edo urtarrilerako finkatuta egotea espero du HABEko zuzendariak. Ondoren, euskaltegiei aurkeztu eta haien feedbacka jasota, lizitazio bat prestatuko litzateke datorren urtean. Lizitazio hori zatika egingo litzateke. Asmoa da, HABEko zuzendariaren hitzetan, datorren urtean bertan A1-A2 jada bidean jartzea. Urte anitzeko proiektu bat da, hasiera batean 2025ean amaitzekoa, baina 2024an amaitu nahiko luke HABEk. Hor, jakina, arestian aipatutako zailtasun berarekin egin lezake topo HABEk: zenbat enpresa aurkeztuko diren. Izan ere, jende asko eta tipologia askotakoa beharko baita INGURA egitasmoan: teknologia menderatzen dutenak, didaktikariak, gidoilariak, pedagogoak, azken batean, diziplina anitzeko taldea osatu behar da.

2) AZTERKETA-CORPUSAREN TRANSKRIPZIOA. HABEk EHuko Hezkuntza Fakultatearekin hitzarmena du izenpetua, eta haiekin batera proiektu bat garatzen ari da, liburuak, testuak edo corpusak zein mailetakoak diren sailkatzeko. Alegia, makinak testuak prozesatuko ditu, aldagai edo deskriptore batzuk oinarritzat hartuz, eta, horien hustuketa egin ondoren, orientabide batzuk emango ditu zein mailetakoa den jakiteko. Halere, areago joan nahi du HABEk, eta gauza bera egin nahi dugu azterketekin, aztertzaileek ere mailaren inguruko orientabide batzuk jaso ditzaten. Azterketa-corpus handia dago gordailutua HABEn, baina aurrez, idazmeneko azterketak digitalizatuz eta mintzamenekoak transkribatuz, froga batzuk egin nahi dira HABEn, aldagai batzuen arabera azterketa horiek zein mailetakoak diren finkatzeko. Oztopo nagusi bat ageri da, izan ere, testu akastunak digitalizatu nahi baitira, gero alderaketak egiteko. IXA Taldea ari da egitasmo honetan, HABErekin lankidetzan. Urteetako lana izango da, 300.000 azterketa digitalizatu beharko baitira.

3)BERDINTASUN-PLANA. Berdintasun Plana abian jarri zen HABEN, baina 2019an Diagnostikoa eta urtez urteko ekintza batzuk planteatu ziren. Aurten, aztertu egin dugu HABE barruan berdintasunaren ikuspegia nola jaso dagoen kontratuetan (aldaketa txiki batzuk egin ditugu) eta baita azterketetan eta ikas-materialetan ere. Datorren urteari begira Plan berri osatuagoa egitea aurreikusi da.

4)EUSKALTEGI PRIBATUEN FINANTZIAZIOA. Beste gai garrantzitsu bat aipatu du HABEren zuzendari Jokin Azkue jaunak, hain zuzen ere, euskaltegi pribatuen finantzaketan aurten burututako urratsa. Legealdiko programan jasota geratu zen moduan, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko finantzaketa handitzea zen asmoa, deialdien bidez. Helburu hori lortzeko, lau urteko prozesua aurreikusi da eta diru-ekarpen bat bideratuko da irakasleen lan-baldintzak hobetzera. Helburua zera da: batetik, udal euskaltegiak irakasleen oinarritzko soldata baino % 5 gutxiago izan arte iristea euskaltegi pribatuetako irakasleen ordainsaria. Bestetik, eskola-orduetan, egun, dedikazio osoz ari direnak 1.050 ordu egiten ari badira urtean, ordu-kopuru hori %20 murriztea da xedea (udal euskaltegiak irakasleek baino % 10 gehiago egitea). Guzti horren funtsa, batez ere, helduen euskalduntzeari erakargarritasun gehiago ematea da,

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

gazte gehiago euskaltegiara lan egitera hurbildu daitezten. Aurrekoaren eraginez, finantzaketak ia % 40an gora egingo du, 2020-21etik hasita 2025 arte. Aurten % 16ko igoera izan da eta datozen 3 urteetan % 6-7 inguruan igoko da urtean. Laburbilduz, 34.000 € inguruko soldata gordina eta 800 orduko lanaldia izango dute irakasleek. Aurrekontuetan urte anitzeko konpromisoa jaso dago jada horretarako.

5) UDAL EUSKALTEGIEI BURUZKO HAUSNARKETA. Udal euskaltegien inguruan egin den hausnarketa-txostena EUDELi aurkeztu zitzaiola oroitarazi du Jokin Azkue jaunak. Une honetan txosten hori aztertzen ari dira EUDELen eta jarraian, euskaltegi-tako zuzendari-ekin partekatze-ko asmoa dute.

6) IKASLEEN DIRULAGUNTZA-DEIALDIA. HABEko zuzendari nagusi Jokin Azkue jaunak azaldu duenez, zenbait aldaketa egin dira ikasle-entzako deialdian. Ikasle-entzako diru-laguntzak ematen zaizkie, maila gaitza lortzen badute, eta euskaltegi-ekin adostu zuten, baldin eta ikasle-entzako kanpo-ebaluazioan maila gaitza lortzen bazuen, HABE-entzako diru-laguntza zuela. Sistema horrek nahiko ondo funtzionatu duela esan du Azkue jaunak, eta gainera du HABE-entzako kanpo-ebaluazio-aren edo ebidentzia horien azterketa egin duela eta ondo egin dutela. Eta, aurrera begira, horrela jarraitze-ko asmoa duela HABE-entzako.

7) EGIATZATZEGINTZA. Egiatza-egintza-aren esparruan igoera nabarmena izan da aurtengoan. Iaz 20.000 lagun inguruk parte hartu zuten bi azterketa-aldietan, eta aurten, berriz, 27.000 lagun izan dira. HABE-entzako pentsatzen dugu aurrerantzean ez direla asko handituko kopuru horiek.

8) "HOBE" DEIALDIA. HOBE-entzako deialdian zenbait arazo izan zirela aipatu du HABE-entzako zuzendariak, sarea kolapsatu egin zelako, eta ondorioz, bigarren aukera bat eman zitzaien azterketa-entzako. Bigarren txanda horretan ondo atera zen dena. Hala ere, kontuan hartu beharra dago HOBE sistema nahiko ezegonkorra dela eta, horrexegatik, EJE-entzako HABE-entzako planteatu dio Jaurlaritzako sare-aren barruan burutzea HOBE-entzako azterketa-deialdia.

9) EUSKARAZKO IKASLE-KOPURUA. Ikasle-kopuruari erreparatuta % 8ko jaitsiera izan zen joan den ikasturtean, Jokin Azkue jaunak azaldu duenez, baina aurten, 2021-2022an, % 3 gora egin duela. Auto-ikaskuntza urte-entzako puntu bat egin duela gora beti, bereziki COVID-entzako eraginez egin duela gorakada 4-5 puntutan. Dena den, aurten neurri batean behera egin duela dio (% 5,3 behera).

3.- GALDE-ERREGUAK

Hainbat gai jorratu direnez, hizketa-gai nagusienak jaso dira jarraian.

1) LKS-REN TXOSTENA

Bizkaiko udal euskaltegi-tako ordezkari Joseba Urriz jaunak hartu du hitza. LKS-REN TXOSTENAK dioena larri samarra iruditu zaiola esan du. Txostenak irtenbide batzuk proposatzen dituen arren, irtenbide horiek beste galbahe bat behar dutela iruditzen zaio. 19 udal euskaltegi-entzako kasuan neurri drastikoak hartu behar direla dio txostenak, ez direlako gauza izan jendearengana iristeko eta beste 10 udal euskaltegi-entzako kasuan ere neurriak hartu behar direla, horien etorkizuna ez delako garbi ikusten. Laburbilduz, 39 udal

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

euskaltegietatik 5 euskaltegi bakarrik libratzen omen dira galbahe horretatik. Beraz, erronka ederra daukate EUDELeK eta HABEk, 39 udal euskaltegitatik 34 kinka larrian daudelako eta sistema osoa eror daitekeelako. Zer pentsatua eman beharko liguke horrek guztiak. Mahai honetan esan izan da euskaltegien birdefinizio bat egin behar dela. 40 urte igaro dira euskaltegi-sarea sortu zenetik, baina filosofia berberarekin jarraitzen dugu, nahiz adituek dioten egoera guztiz aldatu dela. Txosten hori oso ondo aztertu behar da. Proposatzen diren irtenbide batzuk ere birpentsatu egin beharko lirateke: esate baterako, herri bateko bi euskaltegiak (udal euskaltegia eta euskaltegi pribatua) elkartzearena. Adierazi du udal euskaltegietak gerenteak prest daudela lan horretan laguntzeko. Udal euskaltegietatik txalotu egiten dugu euskaltegi pribatuen finantzaketa berria; izan ere, sistema duina izatea nahi badugu, sistema osoak izan behar du duina. Baina galdetu egin nahiko nuke ea irizpide teknikorik badagoen horretarako, eta ea irizpidea den orduko edo moduluko zenbat ordaintzen den.

HABEko Zuzendari Jokin Azkue jaunak erantzun dio zehaztuta dagoela txostenean, eta hain zuzen ere, 66 €tan dagoela moduluko.

Joseba Urriz jaunaren ustez, euskaltegi pribatuei diru hori eman behar bazaie, publikoei ere hori eman beharko litzaieke gutxienez. Euskaltegiei zenbat diru eman behar zaien kalkulatzeko erabiltzen den irizpide teknikoa da euskaltegi bakoitzak zenbat eskola-ordu ematen dituen, eta eskola-ordu horri prezio bat jartzen zaio. Udal euskaltegiek 55 € eta 70 € artean kobratzen dute. Baina euskaltegi pribatuek 66 € kobratu behar badute, publikoek ere gutxienez hori kobratu beharko luketela deritzo Urriz jaunak. Honek udal euskaltegien finantzaketaren inguruko hausnarketa ekarri beharko luke, ez duelako uste sektore publikoak kaltetua atera beharko lukeenik. Urriz jaunak azpimarratu nahi izan du euskaltegi pribatuen finantzaketa-modu berria txalotu egiten duen arren, ez dadila izan esparru publikoaren kaltetan finantziaketa hori.

2) C2 EUSKARA-MAILAREN JABE IZATEA

Joseba Urriz jaunak gaineratu du askotan jartzen dela mahai gainean nolako zailtasunak dauden euskaltegietan irakasleak kontratatzeko. Iaz ere horren inguruan hitz egin zuela, baina ez dela ezertxo ere egin horrekin loturik. Iaz, Barakaldoko euskaltegian lan-poltsa bat sortu zutela aipatu du, eta **C2 MAILAREN JABE IZATEA** eta Pedagogia arloko ikasketak edukitzea eskatu zietela hautagaiei. Lan-baldintzak on samarrak izanagatik ere (40.000 €tik gorako soldata, urtean 735 eskola-ordu, egunean 4 bat ordu) hiru hautagai besterik ez ziren sartu lan-poltsan eta hirurak, gainera, lanean ari dira. Hori zergatik gertatu den galdetu du. Bere ustez, euskaltegiek ez dute gizartean nahikoa oihartzunik hautagai izan daitezkeen irakasleak erakartzeko. Bere aburuz, HABEk –IVAPEkin edo– egin beharko luke sustapen-lan hori, euskaltegiek ez baitute baliabiderik. Egoera honek, sekulako lan-gatazka dakarrela nabarmendu du, bajaran dauden irakasleak estali ezinik daudelako eta lanean ari direnak bere lanaldiaz kanpoko orduak sartzen ari direlako.

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

IVAPeko ordezkari Garbiñe Doval andreak erantzun dio Urriz jaunaren iradokizunari, izan ere, bere iritziz, Funtzio publikoak egin behar bailuke lan-poltsa hori. Gainera, argitu du kontsulta egin zela bere garaian eta Funtzio Publikoak ihardetsi zuela ez zegoela haien esku afera hori. Dena den, agerian jarri du, Udal euskaltegiak udalarekin batera moldatu daitezkeen arren, euskaltegi pribatuei ezinezko zaiela hori egikaritzea.

Euskaltzaindiaren ordezkari Sagrario Aleman andreak galdegin du ea ba al dagoen jakiterik zenbatekoa den EAEn C2 maila dutenen kopurua. Bestalde, aitatu du agian normala izan daitekeela C2 eskatzearen ondorioz hautagai gutxi aurkeztea eta faktore horri gehituko liokeela euskaltegien lana nahikoa balioetsia ez izatea. Laburbilduz, horrek guztiak ere eragiten duela jendea lan honetara ez aurkeztea. Bere ikuspegitik, euskaltegien lana baloratze aldera zerbait egin liteke.

Joseba Urriz jaunak agertu duenari helduz, arazoa gizarte osoarena dela dio, irakasleak topatzeko zailtasunak arlo guztietan baitaude. Bere ikuspuntutik, euskaltegi irakasle guztiek eduki beharko lukete C2 maila, baina onartzen du horrek zailtasunak dakartzala gaur egun, jendeak ez duelako gainditzen C2 maila. LKSren txostenak berak dio HABEK ere arazoak izango dituela C2 mailarekin, C1eko aztertzaileei eskatuko zaielako C2 mailaren jabe izatea, eta datuen arabera, C1 mailako aztertzaileen % 44k ez dute C2 maila egiaztatuta. Aurreko denak erakutsi du arazoa larria dela.

3) EHU-REN MASTERRA ETA EUSKAL IKASKETAK

HPSko ordezkari Miren Dobaran Sailburuorde andreak aditzera eman du **EHUrekin elkarlanean Master** bat abian jarri zela, berariaz **euskara-irakasle eta euskara-teknikari gisa aritzeko prestakuntza** emateko xedea duena, eta dagoeneko hirugarren edizioari ekin zaiola. Argi dagoela gabezia handia dagoela euskara-irakasleak erakartzeko, baina baita euskara arloan lan egiteko ere. Adibide gisa, gogora ekarri du, batetik, euskara-teknikariaren ordezkapenak ezin direla gauzatu, ez dagoelako inor eta, bestetik, Deustuko Unibertsitatean euskarazko ikasketetan 9 ikasle daudela bakarrik matrikulatuta. Hain zuzen ere, horrexegatik abiarazi zutela Masterra. Baina ohartarazi du Masterrean parte hartzen dutenak jadanik lanean ari direla. Beste ildo batetik, esate baterako, hezkuntzan Masterrik gabeko irakasleak kontratatzen ari dira DBHn. Bere aburuz, ikasketak amaitu berriak dituztenak ez etortzeko arrazoia ez da lanbide horretan baldintza duinik ez dagoela –hain zuzen ere, lan-baldintza horiek hobetu egin dira, 34.000€ko gutxieneko soldata ezarriz, eta hobetzen jarraitzeko helburua dago HPS sailetik–, baizik eta ikasleen buruan ez dagoela euskararen sustapenean lan egiteko asmorik. Eta horren oinarria ez da euskaltegiek fama txarra dutenik ere. Bere ustetan, gazteen buruan dagoena da goizez bakarrik lan egitea, arratsaldeak libre edukitzea eta sistema publikoak ematen duen segurtasunaz baliatzea. **C2 EUSKARA MAILA dela eta**, galdetu du ea nork daukan C2 maila. Bere iritziz, **ezin da eskatu C2 maila, C2 maila duenik ez dagoelako**. Ondorioz, iradoki du C2aren baldintza hori ezabatu egin beharko dela oraingoz (une honetan Bingen Zupiriak adierazi du bilera utzi beharra duela, Legebiltzarrean interpelazio bat duelako).

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

Garbiñe Doval andreak aipatu du, arazoa fakultateetan “**euskal ikasketak**” egiten oso jende gutxi dagoela da eta hori gertatzearen zioetako bat, prestigio kontua ere badela. Beste motiboetako bat, litekeena da, Euskal Filologia zenari izena aldatu izana eta orain Euskal Ikasketak bihurtzea. Hori dela eta, bere gogoeta honakoa da: gaur egun, unibertsitate-munduan “dena” Filologia izanik, gurean “Euskal Ikasketak” deritzo eta agian horri ere buelta bat eman beharko zaiola.

Miren Dobaran Sailburuorde andreak argitu nahi izan du Batxilergoan Filologiek ez dutela erakarmen-indarrrik zientzia-ikasketen aldean, horietan ikusten baita etorkizuna, gizartean zabaltzen den publizitatearen ondorioz.

Garbiñe Doval andreak nabarmendu du beharbada ez dela ongi komunikatu filologia zer den, zeren eta gaur egun teknologia-enpresa askotan hizkuntzalariak eskatzen ari baitira. Bere ikusmoldeak, guk – euskalgintza sektorean dihardugun eragileok – ez badugu asmatzen hori ongi transmititzen, gurea da arazoa.

Miren Dobaran Sailburuorde andreak azpimarratu du, hain zuzen ere, Masterraren bidez horixe bultzatu nahi izan dutela, eta ezagutzera eman lana edukiko dutela eta ingeniari batek irabazten ez duena irabaziko dutela. Argi du jende hori erakartzeko gai izan behar dugula, eta behar izanez gero, fakultatez fakultate joan beharko dela publizitatea egitera. Baina ez dela egiteko erraza, bere esanetan, orohar gizartean ez dagoelako filologiarik egin nahi duenik eta euskararen sustapena ez delako erakargarria. Bestalde, gazte batek, C1 bakarrik eduki arren, formakuntza egokia baldin badu, ez duela zertan irakasle txarra izan nabarmendu du. Azkenik, zera azaldu du Dobaran andreak: gauza bat dela nahiko genukeena eta beste bat errealitatea, eta C2 maila eskatuz gero, ez dagoela lan-poltsa bat eratzeko modurik, are gutxiago Bilbon.

Juan Carlos Murillo jaunak, HABEko teknikariak, bere ikuspegia ezagutzera eman du eta egoera larria dela aitatu du. Hezkuntzan Filologia Tituludunak dira jaun eta jabe, etengabe ari direlako filologiadunak eskatzen, ingeles, frantses eta euskal filologiakoak. Bere aburuz, euskalgintzaren **arazoa ospea** da, baina ez bakarrik euskaltegia, irakaskuntza-arlo osoarena baizik, eta horrek hausnarketa eskatzen duela. **C2 mailaren auziari dagokionez, C2 maila gainditu daitekeela dio** eta esperientzia zuzenez baieztatu dezakeela hori. Bere iritziz, euskaltegietan, horren inguruan, fake news asko dago (nolakoak diren azterketak, nolakoak aztertzaileak), baina egiaz, maila duenak gainditu egiten duela. Interesgarria omen litzateke ikustea, gainera, euskaltegietako irakasleen artean zer mugimendu egon den, C1ean ari direnetatik zenbat saiatu diren C2 mailako azterketa gainditzeko. Amaitzeko, gogoeta gisa gehitu du C2 mailara gindoazela aspalditik zela ezaguna, azkeneko 10 urteetan bazekitela hori, baina norberak jakingo duela mugimendurik egin den edo ez. Bere ustez, **C2an atzera egitea atzerapauso** handia izango litzateke.

Miren Dobaran Sailburuorde andreak azaldu duenez, **gazteek ez dute euskararen irakaskuntzan** aritu nahi, ez zaie erakargarria egiten beste aspirazio batzuk dituztelako, baina giltzarria ez dela soldata, baizik eta, euskara-teknikariaren lanetan ez duela inork jardun nahi. Dobaran andreak baieztatu duenez, gaur



HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

gaurkoz, ez gara gai gazte horiek erakartzeko. Bere ustez, gainera, beste afera bat dago, alegia, helduekin jardun beharra. Galdera ireki bat plazaratu du Dobaran andreak: “zergatik alde egiten dute irakaskuntzara? Ez ote da agian, 25 urteko gazteek ez daukatelako gaitasunik IVAPeko funtzionarioekin edo medikuekin gela batean egoteko?”.

Garbiñe Doval andreak bere esperientzia pertsonala gogoratu du, hots, nola karrera amaitu berritan hasi zela euskaltegian helduei klaseak ematen, askotan umeekin baino hobeto, hurrekin aritzea ere sarritan gogorragoa delako. Horregatik, ez du uste gakoa hor dagoenik. Hau da, adina ez dela kontua.

IRAKASKUNTZA HOMOLOGATURA DEDIKATZEN EZ DIREN EUSKALTEGIETAKO LANGILEAK

Joseba Arbelaitz Zumeta jaunak, Gipuzkoako udal-euskaltegieta irakasleen ordezkariak, zorionak eman ditu sektore pribatuaren finantzaketagatik, aspaldiko aldarrikapen bat delako. Baina beste zailtasun batzuk agertu dira, **irakaskuntza homologatura dedikatzen ez diren euskaltegieta langileekin**, trebakuntzan aritzen direnekin edo banakako eskolak ematen dituztenekin, eta iruditzen zaio horiek ere kontuan hartu beharko lirakekeela.

HABEko Zuzendari Jokin Azkue jaunak erantzun dio **jakinaren gainean zeudela** beste funtzio batzuk betetzen dituztela zenbait euskaltegi, itzulpenean aritzen direlako eta abar, eta euskaltegi batzuek ere jakinarazi dutela beste Administrazio batzuren hainbat lizitaziotan parte hartzen dutela.

Miren Dobaran Sailburuorde andreak gogoeta egin du bilera honetan gauden erakundeok lizitazio horietako prezioa zaindu beharko genukeela, zeren eta bestela euskaltegieta inork ez baitu nahiko **trebatzaile** gisa aritu, euskaltegian soldata handiagoa jasotzen dutelako. Konponbide gisa mahai gainean jarri du ezarri egin beharko litzatekeela trebatzaile baten soldata gutxienez euskaltegieta irakasle baten berdina izatea. Gainerakoan, gatazka sortuko baita. Gogorazi duenez, beste sektore batzuetan kontuan hartzen da hori, esate baterako, garbitzaileenean.

Joseba Arbelaitz Zumeta jaunak gazteen aldeko aldarrikapen bat egin du, izan ere, sinetsita baitago administrazioaren **sustapen-lana** askotan oso pasiboa izan dela, horman paper bat jartzera mugatu dela eta gehiago egin behar dela. Esaterako, Osakidetzan profesional euskaldunak erakartzeko, bere garaian fakultateetako ate irekien jardunaldietara joaten zirela, edo lanbide-heziketako zentroetara, triptikoeekin edo hitzaldiak ematera. Horrelako saioetan, hautagaiei azpimarratu ohi zitzaizen euskarak atea irekiko zizkiela, euskara beharko zutela, eta askok erantzuten zutela ez zutela horren berririk inon jaso. Arbelaitz jaunaren argudio nagusia zera da: gehiago sakondu beharko litzatekeela eta arrazoiak ongi aztertu beharko lirakekeela.

Joseba Urriz jaunak nabarmendu du, hamabost minutuz gauza berarekin atzera-aurrera ibili eta gero, agian ez dela ongi azaleratu gaia. Itaundu du ez ote den unea egoera honen nondik norakoaz hausnartzeko. Hainbat galdera zuzen jarri ditu mahai gainean: “Euskaltegiak euskara ikasteko lekua bakarrik izan behar du?”. Garai berriotan, Administrazioan zehar-lerroko filosofiak nagusitzen ari direla

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

ikusita, berriro definitu behar dela euskalgintzaren sistema osoa baieztatu du. “Euskal Herrian 100 urtez arituko dira 1.600 teknikari euskara irakasten?” Bere ustez, ez. “Euskaltegiek ez dute beste funtziorik betetzen?” Berari, behintzat, nekeza egiten zaiola pentsatzea euskaltegiak euskara irakasteko bakarrik daudela. Aurreko guztiaren eraginez, agian HABEren legea –HABESEA– eguneratu beharra dagoela adierazi du.

Juan Carlos Murillo jaunak argitu du euskaltegiak aspaldi ari direla **enpresa-planak eta hizkuntza-zerbitzuak** eskaintzen, justizia sailera trebatzaileak bidaltzen eta, egiaz, bide horiek hobetu egin behar direla.

UDAL EUSKALTEGIAK

Joseba Arbelaitz Zumeta jaunak hitz hartu du eta agertu du, lehenik, **LKSren txostena** dela eta, kezkatuta dagoela, eta bere burua eskaini du txosten horren gaineko hausnarketan laguntzeko. Bigarrenik, irakasle-lana prestigiatu eta sektore pribatua duintzeko egindako ahalegina ongi etorria dela. Hirugarrenik, LKSren txostenak islatu bezala, irakasle gehienak adin batetik goragokoak direnez, hemendik urte gutxira azaleratu egingo dela jubilazioaren ondoriozko hutsunea. Laugarrenik, oroitarazi du udal euskaltegian lan egindako urteengatik ez dela aitortzarik jasotzen gainerako Administrazioetan, irakasleek egindako lanak ez baitu puntu bakar bat ere meritu-lehiaketan. Horren harira, orain urtebete egindako bileran esan zen hori lortzeko lanean ari zela HPS saila, eta ezagutu nahiko lukeela zer egin den. Bosgarrenik, jakinmina duela, hizkuntza-eskoletan ordezkoko irakasleak topatzeko zailtasunik ote duten, uste baitu ez dutela hainbesterako eragozpenik, nahiz eta susmoa bakarrik den. Baina horrela balitz, jakitun izan beharra dagoela, horrek euskalgintzaren sektoreari buruzko zantzu batzuk emango dizkigulako.

Miren Dobaran Sailburuorde andreak erantzun dio datu horiek aterako dituztela (zer profiletako jendea den eta nondik hornitzen diren). Meritu-lehiaketari dagokionez, asmo horretan lanean jarraituko dutela, helburua puntuak aintzatestea baita.

HABEko Zuzendari Jokin Azkue jaunak berretsi duenez proposamen horiek guztiak txostenean jasoak daude. Hor azpi-azpian dagoena udal legea da. Udal lege horretan, **eskumen partekatu** batzuk ematen zaizkie udalei eta gobernuari euskararen **erabileraren sustapenean**.

EUSKARA IRAKASLEAK

Miren Dobaran Sailburuorde andreak dio stand batekin joan behar badute fakultateetako ate irekien jardunaldietara etorkizuneko irakasleak erakartzera, joango direla. Esango zaiela gazteei soldata onak irabaziko dituztela, **ibilbide profesional** bat egingo dutela, beldurrak kentzen eta **eskaintza erakargarri** bat egiten saiatuko direla. Horretarako, gainera, **prestakuntza on bat** eskainiko zaiela. Beste era bateko estrategia bat behar dela azpimarratu du. Agian komeni dela komunikazio-plan horretarako aholkularitza bat kontratatzea. Azken batean, **euskara-teknikariaren izena erakargarri** egiten asmatu beharra dagoela. Lan-poltsak osatzeko hausnarketa hori egitea da presazkoena, edonola ere.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2021eko abenduaren 17ko bilera-akta.

Besterik ez dagoenez, bertaratutakoak agurtu eta etortzeagatik eskerrak eman ondoren, batzordeburuak bukatutzat eman du bilera.

Gasteizen, 2021eko abenduaren 17an.

Izenpetua: Batzordeko Idazkaritza.

Jokin Azkue Arrastoa,

HABEren zuzendari nagusia.

Itziar Azurza Sorrondegui,

HABEko aholkularitza juridiko eta pertsonaleko Arlo burua.

